

Jainkoa unibertsoaren sormen gisa

27/01/2023/ Argibideak /

Merezi al du oraindik "Jainkoaz" hitz egitea? Egia esan, ez dakit, baina, zalantza eta guzti, jende askorentzat –baita neuretzat ere– unibertsoko Misterio esanezinik sakonena eta onena esateko modu ona da oraindik, eta justiziaren eta bakearen inspirazio-iturri hainbeste behar duen mundu honetan.

Latinezko Deus hitza bera (hortik Dios, Dieu, Dio), deiw ("argi") erro indoeuroparretik eratorria, metafora da bere horretan, hots, esanahitik haratago, azken Misteriora edo lehen Errealitate esanezina garamatzen esamoldea. Gauza bera gertatzen da God (edo Gott) hitzarekin, gheu ("inbokatu", "hel egin") erro indogermanikotik eratorria. Eta berdin euskarazko Jaun-goiko, nahiz eta ez izan agian metaforarik inspiratzaileena (Jainko, aldiz, antzinako euskaldunen Jinko, Mariren semearen izenetik bide dator, baina ez du etimologia ezagunik). Horrela jarrai genezake, metaforaz metafora, hizkuntza ezberdinetan Jainkoa esaten den hitz guztiekin. Esanezinen teologia metaforiko eder, apal eta errebelatzailea litzateke.

"Sormena" iruditzen zait misterioen Misterioaren, errealitate guztien Errealitatearen, Jainkoaren, zehatzapen metaforiko iradokitzaileenetako bat. Hala proposatu zuen duela hamarkada bat pasa Stuart Kauffman (1939-), biologo ospetsu, 1987ko "jeinuaren" MacArthur saridun, konplexutasunaren teoriaren ikertzaile, bere esanetan "humanista sekular", zientziaren mugetako pentsalari ikuskaridunak. Argi eta garbi adierazten du "Jainko" teistaren (munduaz bereizia den Izaki Goren ahalguztidun, sortzaile, pertsonalaren) atea dela, eta irmotasun berarekin adierazten du, hala ere, gaur egun, XXI. mendea aurrera doanean, gizateria eta bizidunen komunitatea salbatzeko, unibertsoaren sakratutasuna berraurkitu eta aitortu beharra dugula, eta Jainko hitz zaharra oraindik baliagarri eta beharrezko izan dakigukeela sakratutasun hori zuzen iradokitzeko eta beraren arabera bizitzeko. Horretarako, noski, Jainkoa edo sakratu dena "berrasmatu" egin behar da (ik. bere liburu hau: Reinventing the Sacred: A New View of Science, Reason and Religion, 2008). Egileak horretaz duen pentsamenduaren zenbait funtsezko gako biltzen ditut libreaki.

"Sakratu naturala" edo "Jainko naturala berrasmatu" behar da, dio. Jakina, "sakratua" ez da beretzat "profanoaren" aurkakoa, eta "naturala" esatean ez du "naturaz gaindikoaren" mendeko esan nahi. "Natural" hitzak natura osoa izendatzen du, existitzen den guztiaren unibertsoa, eta "sakratua" natura osoa da harridura, begirunea, errespetua eta erantzukizuna sortzen dituen aldetik. Ohar bekio termino bakoitzari.

Sormena aitortzeak etika inspiratzen, oinarritzen, sostengatzen du. Errealitate osoa energia misteriotsu edo dinamismo sortzaileak blaitua, barneratua, mugitua kontenplatu dut, eta harridurak hartzen nau. Harridurak erreberentziara narama: oi etengabeko higiduran, harremanean eta eraldaketan zaren errealitate sakratu, izanarazten gaituzun eta izanarazten zaitugun hori!, oi zirkulu infinitua, erdigunea nonahi eta zirkunferentziarik inon ez duena, hasierarik eta amaierarik gabea!, orotan gurtzen eta inbokatzen zaitut, oroz haratago eta honatago. Erreberentziak izaki guztien errespetu absolutura eragiten dit, partikuletatik galaxietara eta multibertsoa (existitzen bada): ororekiko harremanean naiz, deus ez zait arrotz, orogandik jasotzen dut eta orori zor natzaio. Errespetuak inspiratzen nau eta erantzukizunera bultzatzen: orok deitzen, interpelatzen, inbokatzen nau. Maitatu hurkoa zeure burua bezala, eta horrela izango zara zu zeu.

Sormen unibertsoa ez da unibertsoetik kanpo. Ez dago kanpotiko ekintzarik ez ekintzailerik, ez dago kanpotik eragingo lukeen "Jainkorik". Errealitate unibertsoa autosortzailea, betierekoa edo denboraz haratagokoa da. "Izan bedi", dio Jainkoak behin eta berriz Genesiko mito biblikoan. Sorbeza orok bere burua, den orok sorraraz dezan utziz eta den oro sorraraziz. Hori da Jainkoa, "nahikoa Jainko", dio Kauffmanek. Izaki Goren pertsonal gisa, funtsean giza itxurako eta partikular gisa, irudikatzen den "Jainko" oro baino intimoago eta infinituagoa.

Sormenak esan nahi du errealitatea, oro har, emergentzia fenomenoaren bidez sortzen dela, hau da: elementu sinpleagoak batura konplexuagoetan eratzen direlarik, forma edo osotasun berriak sorrarazten dituen funtsezko fenomenoaren bidez. Bai sormen misteriotsua, non gutxiago denetik gehiago dena ateratzen baita. Partikulak bildu eta atomoak sortzen dira, atomoak bildu eta

molekulak sortzen, molekulak bildu eta zelulak –zelula bizidunak!– sortzen, zelulak bildu eta ehunak, organoak, organismo txit konplexuak, onddoak, landareak, arrainak, hegaztiak, ugaztunak, primate hominoideoak, hominidoak, gizakiak... sortzen eta auskalo zer sortuko den oraindik, edo existitzen den jada eta ez dugun ezagutzen. Hala ere, ezin dugu ukatu sinpleagoa zen hartan bazela forma konplexuagoetan elkartzeko eta horrela oraindik imajinaezinak ziren formak sortzeko ahalbidea. Zer da, beraz, "sinpleago" hori? Potentzialtasuna da.

Sormenaren eraginez, hain zuzen, elementu sinpleagoetatik forma berri konplexuago kualitatiboki desberdinak sortzen dira, sorburuko elementuetara erreduzitzezinez direnak. Forma berri konplexuago horiek lege ezberdinez arautuak dira eta ezaugarri ezberdinez hornituak, ezaugarri horiek ezin direlarik esplikatu sorburuko forma sinpleak arautzen dituzten lege soilen bidez. "Konplexuago izateak desberdin izatea darama" (P. W. Anderson, Fisikako Nobel Saria). Hala, biologia ez da lege fisiko eta kimikorik gabe esplikatzeko, ezta horiekin bakarrik ere. Espiritualtasuna ez da lege biologikorik gabe esplikatzeko, ezta horrekin bakarrik ere. Bizia fisikatik eta kimikatik sortzen da, baina ezin da horietara erreduzitu; gogamena zelula neuronaletatik sortzen da, baina ezin da horietara erreduzitu; kontzientzia burmuinetik sortzen da, baina ezin da horretara erreduzitu. Molekulak ezin dira atomoetara erreduzitu, ezta zelula biziduna molekula soiletara ere, ezta txinpantzea –ez txoria, ez arraina, ez landarea– organo-multzo soilera ere. Sor daitekeen izaki transhumano baten adimena eta kontzientzia ere ezingo dira erreduzitu gure Sapiens espeziera. Konplexuago izateak, ordea, ez du esan nahi, inondik inola, ez handiago, ez garrantzitsuago, ez duinago izatea.

Sormenak esan nahi du, halaber, ez dagoela determinismo absoluturik. Unibertso autosortzailea errealitate irekia da. Etorkizuna ezin da aurreikusi, ezin baititugu ezagutu hura taxutuko duten faktore emergente guztiak edo beteko dituen lege berri guztiak. Fenomeno oro –meteorologiko, ekonomiko, politiko...– elkarri lotutako kausen segida amaigabe luze eta konplexu baten ondorioa da, eta fenomeno oro, baita hutsalena ere, beste faktore-segida kalkulaezin baten hasiera da, faktore horiek guztiek azkenean uholdeak edo lehorsteak, uztak edo goseteak, inperioak eta iraultzak eragin eta historia alda lezaketelarik. Azken emaitza sormenaren ezin aurreikusizko fruitua da beti.

Sormen sakratua, den oro ororekin batzen duena gorputz kosmiko osoki sortuaren eta osoki sortzailearen baitan. Gorputz horretan, forma bakoitza atalez osatutako osotasuna da, eta osotasun handiago baten atala aldi berean. Gorputz horretan, atal bakoitza ekintzaile da eta ekintza oro sortzaile, onerako edo txarrerako (balidin eta "sorkuntza" dei badieziaiokegu gosea eta miseria, gerra eta suntsipena, hainbat gauza ikaragarri, sortzen dituen ekintzari). Gorputz horretan, izaki guztiok, elkartasunean, Sorkuntzaren edo Sormen infinitu eta betierekoaren ekintzaile-kide gara.

Sormenaren metaforak azken Misterioa, lehen Errealitatea, betiereko Presentzia iradokitzen du, materia edo energia arnasagabearen eta espiritu immaterialaren arteko aurkakotasun oro gainditzen duena: jatorrizko errealitatea, betieran eta aldi berean, sortua izaten ari den "materia-energia espiritual" da eta sortzailea den "espiritu material". Unibertso immanentearen transzendentzia eta transzendentzia unibertsalaren immanentzia. Sormena ez da existitzen sortzen diren formetan baino, eta formak ez dira existitzen sormenaren ekintzaile gisa baizik.

Sormenaren metaforak, beraz, izaki guztiak "Jainkoaren" atal gisa eta "Jainkoa" atal guztien batura gisa ulertuko lituzkeen panteismo trakets batetik haratago garamatza. Sormena kontzilia daiteke panteismoarekin (grezieraz "pan en Theó" = "Gauza guztiak Jainkoarengan"), izaki guztiok Jainkoarengan baikara, baina Jainkoa imajinatu gabe bere baitan gaituen Zerbait edo Norbait bezala. Sormena, agian, hobeto adieraz liteke teoenpantismo ("Theós en pantí" = "Jainkoa gauza guztietan") hitzez –zilegi bekit neologismo hau proposatzea–, Jainkoa ez baita izakiengan baizik, sormenaren edo izamen-ekimenaren misterio.

Sormenaren jainko-metaforak bai teismotik eta bai ateismotik haratago darama; "nolabaiteko Jainkoarengan sinesten dutenen eta, nik bezala, sinesten ez duten humanista sekularren arteko arrakala gairi dezake", dio S. Kaufmanek. "Beste zerbait behar dugu", gehitzen du, "espazio sakratu mota berri bat". Halaxe uste dut nik ere. Trantsizio kultural sakoneko garai hauetan, zinez, teismo zaharra eta sinesmen erlijioso zaharrak gairitu beharrean gara, beren literaltasunean eutsiezinak bihurtu baitira, baina, era berean gairitu behar dugu, Kauffmanen esanetan, aurkitzen garen "basamortu espiritual".

Laburbilduz, biologo filosofo iparramerikarrak errealitatearen, zientziaren eta halaber erlijioaren, sakratuaren nahiz Jainkoaren ikuspegi berria proposatzen du: "Jainko berri bat –dio–, ez transzendentea dena, ezta ekintzailea ere, baizik eta unibertsoaren sormena bera". Eta denok deitzen gaitu begirada mistiko eta etiko-politiko batera, positibismo zientifikoaz eta dogmatismo erlijiosoaz (positibismoaren beste modu bat denaz) haratago.

Zergatik jarraitu, ordea, Jainko izen nahasgarria erabiltzen errealitate unibertsalaren sakratutasuna adierazteko? S. Kauffmanek erantzuten du: "Jainkoa delako sortu dugun 'sinbolorik' boteretsuena' ". Ez dakit nahikoa arrazoia den, baina kontua da milaka milioi gizakik "Jainkoa" (bertsio guztietan) metaforarekin izendatzen dutela oraindik ere errealitaterik errealena, sakratuena eta esanezinena: errealitatea animatzen duen eta gu interpelatzen gaituen sormena.

Nolanahi ere, kontua ez da hitz bat ala bestea erabiltzea, izen bat beste batez ordezkatzeari. Kontua ez da ere zerbait sinestea ala sinesteari uztea. Kontua da sortzea, sortuak izan gaitzen uztea eta sormen sakratuaren ekintzaile izatea, hau da, gerra den lekuan bakea, gorrotoa den lekuan barkamena, heriotza den lekuan bizia eta suntsipena den lekuan sorkuntza izanaraztea.

Aizarna, 2023ko urtarrilaren 25a

Gaiak: Ateismoa, Jainkoa, Materia, Misterioa, Sormena, Transteismoa, Unibertsoa